

FUNTSEZKO ELKARTEAK

- **Eusko Jaurjaritza (hezkuntza, segurtasun, lan eta justizia sailak).**
 - Zertarako?
 - Argi dago **proiektu batek** (eta gehiago bizikidetzakoa izanik) **eduki dezakeen babesik esanguratsuen gobernua eta erakunde publikoek emandakoa dela**, jendearengana errazago heldu eta bidean oztopo gutxiago edukitzeko.
 - Honen bidez, **erakunde partikularren bitartez lortu ezin daitekeen zabalkundea** lortuko da, **kolektibo zein multzo ezberdin guztien eskuetara** iritsi ahalko baita, eta hori zailagoa baita aipatutako erakundeekin.
- **Berdintasunaren aldeko erakundeak.**
 - Emakunde adibidez.
 - Zertarako?
 - Oso garrantzitsua da gure proiektua aurrera ateratzeko, **asmo zein helburu berdinak dituzten elkarte eta taldeen oniritzi zein elkarlanak bermatzea**, hauek baitira funtsean gure helburura hurbiltzen gehien lagunduko digutenak.
 - Ongizate soziala lortzeko elkarlana sustatzeko beharra dauka proiektu honek.
- **Telefonia enpresak.**
 - Zertarako?
 - **Doaneko telefono zerbitzu bat** sortu nahi badugu, horretarako **baldintzak eta aukerak** jakin beharko ditugu, **bezeroarekiko arreta guk nahi dugun bezalakoa** izango dela bermatzeko.
- **Polizia.**
 - Zertarako?
 - **Polizia** da berez horrelako arriskuak daudenean **esku-hartze handiena izan behar duen erakundea**, eta honen esku geratzen da kasu hauetan eman daitekeen ondorio orori aurre egitea. Horregatik, **elkarlanak bion prozesua erraz dezake**.
 - Gainera, **gure funtzio batzuetarako** (poliziarekin kontaktu zuzenean jartzeko aplikazioak edukiko duen funtzioa) **harreman honen beharra** izango dugu, eta **gure funtzioetako askok ere, poliziaren lana erraz dezakete**.
- **App-aren prestaketarako beharrezko teknikariak.**
- **Aholkularitza legala.**
 - Biktimen eta gertatutako egoeren aurrean, bezeroek edo erabiltzaileek **aholkularitza legal baten beharra** edukiko dute, eta **guk zerbitzua eman ezin badugu ere**, komenigarria da **aholkularitzan jarduten duen erakunderen batekin** harremanetan jartzea.